

hezkuntza@cgt-lkn.org



CGT
LKN



MENPEKOTASUNIK
GABEKO
HEZIKETA ASKE
BATEN ALDE
BORROKAN



hezkuntza@cgt-lkn.org

www.cgt-lkn.org

Bailen kalea 7, 2.baxua

48003 Bilbo (Bizkaia)



Bizkaiko hezkuntza publikoko langile batzuk, CGT-LKNren eredu sindikalak erakarrita gure sektoreak LOMCE-Heziberrirekin, Jaurlearitzaren jarrera eta murrizketekin zein sindikatuen lausotasunarekin jasaten ari zen egoerari aurre egiteko 2011 urtean gure alorreko sail sindikala osatu eta 2013an legeztatu genuen.

Gure asmoa ohiko sindikatuen profesionalizaziotik, Lakuan burututako negoziazio handiustetatik eta sindikatu handien hurbiltasun faltatik urruntzea, eta sindikalgintzak gure artean duen sinesgarritasun faltari buelta ematea zen. Aldi berean gure sektorean berebiziko garrantzia duten gaiei errotik helduz: irakasleen aurkako indarkeria eta jazarpena, interino zein ordezkoen babesgabezia eta isilpeko zapalketa, prekarietatea, lan karga burokratikoaren handitzea, ikuskaritzak eta zenbait zuzendaritza taldeen gehiegikeriak, bullyingaren aurkako protokoloen eraginkortasun falta, ikasgeletan sumatzen den bizikidetzaren egoera larria, etabar.

Eta gure baliabide xumeekin, administrazioaren zein sindikatu handien aldetik gutxituak eta baztertuak, borroka horretan ibili izan gara. Batzuetan bakarrik eta besteetan gehiengo sindikalak antolatutako mobilizazio eta ekimenei laguntzen.

hezkuntza@cgt-lkn.org

GURE JARDUERAREN XEDEAK

-AUTOGESTIOA eta EKINTZA ZUZENA: langileek zuzenean, asanbladen bitartez, zuzendu eta garatu behar ditugu gure interesen aldeko borrokak. Zentzu honetan sindikatuari dagozkion kontuak sindikatuko kideek asanblada irekietan eztabaidatu eta erabakitzen ditugu. Ordezkaritza eta koordinazio lanak, ahal den neurrian, txandaka eta guztion artean betetzen dira eta asanbladen aurrean erantzun behar dute. Hau dela eta sindikalismoa ogibide edo lanbide bihurtzearen kontra gaude, eta ahal izanez gero ez dugu liberaturik.

-AUTONOMIA: langile elkarte eta sindikatuak bestelako elkarte, erakunde, alderdi politiko edo taldeengandik autonomoak izan behar dute eta ez dute haien antolaketan zein funtzionamenduan inoren esku sartzerik onartuko. Horren harira ez du diru laguntzarik jasotzen ez negoziarik bultzatzen.

-ETIKA eta GARDENTASUNA: funtzionamenduan, eskuratzen diren baliabideen kudeaketan (ordu sindikalak, liberazioak, diru laguntzak, kuotak...), negozioazio guztietan, beste erakunde eta taldeekiko harremanetan, eskura ditugun informazioetan.

-FEDERALISMOA: langile elkarteak haien artean batu egiten dira, borondatezko akordio askeen bitartez, federakundeak osatuz, baina beti ere bakoitzak bere autonomia mantenduz. CGT estatu mailako sindikatuak batzen ditu eta nazioarteko hainbat sindikatuekin elkarlanean dabil.

-ELKARTASUNA: langileen eta elkarten arteko elkartasuna, elkarlaguntza eta elkarlana ezinbestekoak dira langileen borrokak aurrera ateratzeko.



CGT-LKN SINDIKATUAREN ANTOLAKETA

-BERTAKO FEDERAZIOAK: hiri edo herri bateko sindikatu guztiak batzen dituen elkarte. Hauek aldiz **ESKUALDE** (Bizkaia) edo **HERRIALDE** (Euskal Herria) mailako federazioetan batzen dira.

-LANBIDE ANITZEN SINDIKATUA: sektore edo jarduera batzuetan sektoreko sindikaturik sortzeko langile nahikorik edota gogorik ez badago, sektoreko sindikaturik ez duten langileak, nahiz eta lanbide ezberdinak izan, osatzen dituzten elkarteak.

-SEKTOREKO SINDIKATUA edo SAIL SINDIKALA: jarduera, sektore edo tamaina handiko enpresa berean lan egiten duten langileak batzen dituen elkarte, adibidez: hezkuntza, UPV-EHUn, metala, garraioak, Euskotren, etab.

www.cgt-lkn.org/hezkuntza



LA DIRECCION DEL INSTITUTO MALTRATA AL PROFESORADO

BEURKO

NO MAS ABUSOS!



CGT-LKN

INSTITUTUKO ZUZENDARITZAK IRAKASLEAK JAZARTZEN DITU

BEURKO

GEHIEGIKERIAK GELDITU!



CGT-LKN